

Herri Aldizkaria

Otomotz

2000ko martxoa 55. alea



QUEVIAZABEN
ZINTZU
MINTZU
ELIARTEA

Ihaukeriak

adin guztikoentzat

ANGEL HERNANDEZ: URRETXUAR BAT EE.BB.etan
IZERDI PATSETAN: JUANJO ARANBURU, AMERIKAKO GAILUR ALTUENETAN
BOTEPRONTOAN: MITXEL BADIOLA

OPEL ZAFIRA



Flex 7 sistemari esker, eserlekuak 39 modu ezberdinetan kokatu daitezke modu errezean, segundu gutxitan eta eserlekuak desmontatu beharrik gabe.
3. ilarako eserlekuak tolestu eta zoluaeren mailan ezkutatu daitezke.
Erdiko ilarako eserlekuak aurrera eraman daitezke.
Alboetako eserlekuak tolestu egin daitezke tresna luzeak autoan garraiatzeko.

Motor hauek daude eskuragarri: 1.6 16V eta 1.8 16V gasolinazkoak eta 2.0 DI 16 V diesela.
Bukaera mailak: Comfort eta Elegance.

OPEL 

Altamira tailerrak Goierriko zerbitzu ofiziala

Matxinporta 4, Urretxu

☎ 943 72 33 71



Honako honetan 1968an La Salleko futbol txapelketan ateratako argazkia duzue ikusgai. Ez dakigu txapelketa irabaziko zuten, baina garai hartan futbolari planta zutenik ezin zaie uka.

Ezkerretik eskubira, zutik: José Agustín Quevedo, Miguel Angel Etxaniz, José Pérez, José Pasabán, Ignacio Agirrebeña, Luis Leturia eta Vicente Quevedo.

Makurturik: Juan Carlos Egiguren, Vicente Mesonero, Santi Azurmendi, Jose Mari Etxeberria eta Antonio Beltrán.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599

Alokatzeko etxebizitzak: eskaria eskaintza baino handiagoa

Elena Arriaran teknikariak azaroaren 15ean Urretxuko etxebizitza hutsen inguruan hasitako azterketa amaitu du. Tarte honetan Elenak Urretxun hutsik dauden edo hutsik zeudela uste zen etxebizitzak jabeekin hitz egin du etxe hauen benetako egoera zein den jakiteko eta alokairuan jartzea lortzeko. Jabeen eta alokairuan hartu nahi dituztenen arteko bitartekaritza lana udalak hartuko du.

Azterketaren emaitzen berri emateko, Elenak berak eta Pello González alkateak prentsurrekoa eskaini zuten. Elenak agertu zuenez, 328 etxebizitzetako jabeekin hitz egin du eta arrazoi ezberdinak direla medio 8 jabe bakarrik daude euren etxebizitzak alokairuan jartzeko prest.

328 etxebizitzetatik 121 (%32) okupatuak daude, baina bertan bizi dena ez dago Urretxun erroldatua. 10 etxebizitza (%3) urtean hilabete batzuetan soilik daude okupaturik. 53 (%14) jada alokatuak daude eta 107 (%29) etxebizitzetako jabeek ez dituzte alokairuan jarri edo saldu nahi etorkizunean etxea erabiltzeko asmoa dutelako edo bertan norbait bizi ahal izateko inbertsio oso handia egin beharra dagoelako. Azkenik 29 jabe (%8) euren etxea saltzeko prest agertu dira eta 8 (%2) udalaren plangintzarekin bat etorri dira eta etxea alokairuan jartzeko prest daude.



Elenaren eta Pelloren esanetan, emaitza oso onak espero ez ziren arren, uste baino jende gutxiago agertu da bere etxebizitza alokairuan jartzeko prest, “argi dago eskaria eskaintza baino handiagoa dela, jende asko azterketaren berri jakin eta berehala udaletxera etorri baita alokatzeko etxeen eske”.

Eskari honi aurre egiteko udalak 23 etxe berri jarriko ditu alokairuan Alde Zaharrean, baina nahikoa izango ez

denez, lursail gehiago erosi eta alokairuan jarriko diren etxebizitza gehiago eraikiko dira.

Bestalde, hutsik dauden etxebizitzaren inguruko azterketa hau burutu ondoren, Elena Arriaranen betebeharra igogailua jarri nahi duten etxeetako jabeek laguntza eskaintzea izango da. Horretarako aholkua emateaz gain, kudeaketa, tramitazioa eta dirulaguntzen bideratzea eskainiko da.

Etengabeko formakuntzaren inguruko bilera

UGGASA eta Urola Garaiko Fundazioak eskualdeko enpresariaren eta Etengabeko Formakuntzarako Euskal Fundazioko (Hobetuz) kideen arteko bilera antolatu zuten Etxeberrri jatetxean. Helburua langileen prestakuntzarako Hobetuzek eskaintzen dituen aukeren berri ematea izan zen.

Hau azaltzeko Aitor Gabilondok, Zumarragako alkatea eta Urola Garaiko Fundazioko presidentea denak, José Luis Garitanok, Adegiko formakuntzako arduradunak, eta Martín Adinek, Hobetuzeko Gipuzkoako arduradunak, hitza hartu zuten. Aitor Gabilondoren esanetan “enpresaren kapitalik baliotsuena ez da teknologia, ondo prestaturiko langilegoa

izatea baizik, UGLE eskualdeko langileen etengabeko formakuntzarako aparteko tresna dugu eta instituzioetatik bere aldeko apustua egiten ari gara”.

Aitor Gabilondok bilerari hasiera eman ondoren, José Luis Garitanok hitza hartu zuen. Bere esanetan “enpresariok formakuntzarako segurantza sozialari ematen diogun dirua gestionatu beharra dugu”. Horretaz gain “Lanbide Heziketa eskarian oinarritu behar dugu eta ez eskaintzan. Heziketak enpresaren eskari eta beharrei erantzuna eman behar die eta orainarte ez da honela nagusiki”. Hau honela dela erakusteko adibidea jarri zuen: “hizkuntza eta informatika ikastaro asko ematen ari dira, baina ez dira hauek enpre-


sen behar nagusiak”.

Bukatzeko enpresariak etengabeko formakuntzaren aldeko apustua egitera animatu zituen “ez baita gastua, inbertsioa baizik”.

Bukatzeko Martín Adinek, Hobetuzen Gipuzkoako arduradunak, Hobetuzek etengabeko formakuntzarako enpresei urte honetan eskainiko dizkien laguntzen berri eman zuen. Bere esanetan Hobetuzek aurten 1780 milioitako laguntza eman behar du, hauetatik 800 Gipuzkoan banatuko dira eta hauen %7a Urola Garaia zuzenduak egongo dira.

Enpresariak Urola Garaiko Lanbide Eskolara jo dezakete informazio zabalagoa jasotzeko.

ASPACERen egoitza berria



Orainarte elkartearen egoitza San Martin auzoan kokaturik egon bada ere, lokal hau txikia gelditzen ari zen behar bezalako zerbitzua eskaini ahal izateko. Hau dela eta, garun-elbarritasuna duten herriko eta inguruotako lagunei behar bezalako zerbitzua eskaintzeko, Azpeitiko egoitzara eramateko asmoa zegoen. Udalak honen berri jakin zuenean ASPACERi egoitza berria eskaintzea erabaki zuen eta egokitzapen lanak amaitu ondoren, iazko azaroaren 23az geroztik egoitza berrian lanean ari dira.


Otsailaren 12an Goierrri elkartearen ondoan kokatua dagoen egoitza berriaren inaugurazio ekitaldia burutu zen. Bertan egoitza berriaren zerbitzuak erabiliko dituzten lagunak, euren gurasoak eta ONCE, ASPACE zein udal arduradunak izan ziren.

ASPACEReko Elisa Carmonak ONCE fundazioari, Kutxa fundazioari eta Urretxuko udalari eskerrak eman zizkien eskainitako laguntzagatik. ONCEko

Cristino Burgoak egoitza berriaren irekizteza zela eta bere poza azaldu zuen eta elbarrien beharrei aurre egiteko beharrezkoa den elkarlanarekin jarraitzeko asmoa erakutsi zuen. Pello Gonzálezek ere, Urretxuko alkateak, bere poza erakutsi zuen eta Urretxuko herriak ASPACERekin elkarlanean 20 urtetik gora daramatzala gogoratu zuen.

Lokalaren egokitzapen lanek 20 milioitako gastua izan dute eta gastu hauen erdia ONCEk ordaindu du, Kutxak %25a jarri du eta gainontzeko %25ari Urretxuko udalak eta Foru Aldundiak aurre egingo diote erdibana.

Egoitza berrian 20 garun-elbarri eta 5 zainzaile daude eta azken hauek oso gustura azaldu dira aldaketarekin. Izan ere, lokal berria zaharra baino handiagoa da, oztopo arkitektonikoak gainditzea lortu da eta herriaren erdian kokatua dagoenez, ondo komunikatua dago. Egoitzak tallerra, ordenagailu gela, bulegoa eta egokituriko hiru komun ditu.



MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaiola, pintura edo besterik behar baduzu zatorz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU



alejandro albisua

kirol gaiak

Soraluze 6
☎ 72 52 22
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...


Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Mairiren euskal dantzen ikastaroa

ROX Mairi emakume elkarteak arin-arin eta fandango ikastaroa eskaini du azken hilabete honetan Zumarragako Jubilatuen egoitzako azken solairuan. Irakaslea Maria Jesus Mendiola izan da eta ikastarora joan direnen esanetan primeran pasatu dute eta Mari a Jesusek oso lan ona egin du. Irakaslea ere oso gustura dago ikasleen lanarekin eta bere esanetan oso ondo moldatu dira.

Ikastaroan 8 lagun aritu dira eta erantzun hona ikusirik Mairiko lagunak beste ikastaro bat antolatzea pentsatzen ari dira orainarte ikasitakoa ez ahazteko helburuarekin.

Bestalde, emakume langilearen eguna dela eta, martxoaren 8ko astean hainbat ekitaldi antolatu ditu Mairi emakume taldeak:



- Martxoak 6:** Diapositiba emanaldia eta solasaldia.
Gaia: "Izarren bidea". Santiago bideak, Gipuzkoan barrena.
Kultur Etxean, arratsaldeko 15:30etan.
- Martxoak 7:** Txangoa.
Ormaiztegiko Zumalakarregi eta Tolosako Gorrotxategi (txokolate) museoetara bisitaldia.
- Martxoak 8:** Txangoa.
Zumaiako Zuloagara eta Zarautzeko Photomuseumera bisitaldia.
- Martxoak 9:** Txango gidatua.
Zegama eta Segurara bidaia "Santiago bideak, Gipuzkoan barrena".
- Martxoak 10:** Urretxu eta Zumarraga ezagutu. Gure eliza eta monumentuen historia.
- Martxoak 14:** Hitzaldia: "Denok aportatzen dugu zerbait".
Hizlaria: Katy Peñalba.
Antolatzailea: Atzegi.
Kultur Etxean arratsaldeko 15:30etan.

OHARRA: 7, 8 eta 9ko txangoen irteera arratsaldeko 15:15etan izango da Areizaga-Kalebarren enparantzan.
Prezioa: 1.000 pzta. bazkideentzat eta 2.000 pzta. bazkide ez direnentzat.

Zinea haurrentzat

Martxoaren 26a bitartean Zintzo-Mintzo Euskaltzale Elkarteak filmeak eskaintzen jarraituko du igandero arratsaldeko 4ak eta erdietatik aurrera Pagoeta Antzokian.

Asteburu honetan hurrek "Fievel eta mundu berria" izango dute ikusgai. Martxoaren 12an "Bostak Kiringo uharteran berriz ere" eskainiko da, martxoaren 19an "Alhambra printzea" eta martxoaren 26an "Anna-Anna" filmak aurtengo haurrentzako zine emanaldiari amaiera emango dio.



Santa Barbara: jaki goxoak paraje paregabeen



Hilabete honetan tradizio handia duen jatetxe bat aukeratu dugu. Izan ere, Santa Barbarako jatetxea, bere kokagunea dela eta, auzokoen topagune eta herriko festagune da. Tradizio honi erantzun nahian eta aldiberean aurrera egin nahian ari dira Santa Barbarako arduradunak Zintzo-Mintzorekin batera, jatetxea euskalduntzeko lanean ere.

Urtebete pasa da arduradun hauek jatetxea hartu zutenetik. Lehendik ere lanbide horretan ibiliak dira eta oso gustura daude. Bezeroak ere gustura egon daitezen eskaintza zabala dute: menua, karta, plater konbinatuak, bokadiloak, pintxoak...

Santa Barbarako lan onaren erakusgarri hemen beraiek proposatzen dituzten menua izan daiteke adibide:

-Urdaiazpikoa, onddo-nahaskia eta etxeko kroketak.

-Txipiroiak.

-Txuletak.

-Mamia.

Txipiroi beteak beraien tintan

-Osagaiak:

24 txipiroi ertain.

2 tipula haundi.

2 tomate txiki.

Pipar berde bat.

4 baratxuri ale.

2 perrexil sorta.

Olioia eta gatza.

-Txipiroiak betetzeko:

Tipula bat.

Baratxuri ale bat.

Perrexil pixka bat.

Olioia eta gatza.

Prestakuntza:

Txipiroien burua, gorputza eta hankak banatu. Dena ondo-ondo garbitu eta hegalak kendu ondoren ondo txikitu.

Burua ateratzerakoan irten diren tripetatik tinta poltsa uretan gorde eta gainontzekoa bota. Burua, ahoak eta begiak bota ondoren, ondo garbitu. Hankak txikitu eta hegal txikituei gehitu. Zartagin batean tipula, baratxuria eta perrexilarekin aleta eta hanka txikituak salteatu eta hozten utzi.

Txipiroiak salteatutakoarekin bete eta txotx banakin itxi. Su txikitat tipulak, baratxuriak, tomateak, piper berdeak eta perrexila egin. Ondoren, sua handitan txipiroiak gehitu kolorea har dezaten. Txipiroiek minutu pare bat daramatenean beraien tinta uretan urtu eta lapikora bota. Gatza bota eta sua jaitsi pixkanaka egin daitezen.

Saltsa txinotik pasa ondoren, berriz txipiroiei bota eta gatzapuntua egiaz-tatu ondoren, irakinaldi bat eman.

Datu interesgarri batzuk:

60 pertsonentzako jantokia.

Eguneko menua: 950 pta. + BEZ

Larunbat eta igandeetan: 1.300 pta. + BEZ

Telefonoa: 943 72 33 87



RENEDO argazkiak

Jaurtzeak • Bataioak • Ezkontzak

Labeaga 52-54 F URRETXU

☎ 725682 722292



MAPFRE

Aseguru etxea

S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA

☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA

943 72 13 70



ARKUPE
TABERNA



ALTZARIAK

MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28

URRETXU

Euskal selekzioen inguruan

Euskal selekzioen inguruan herriak du hitza, herriak eman behar du lehen pausoa. Baina noski, honekin ez dugu ezer egiten, hori ez da nahikoa, hurrengo pausoa politikariei dagokie. Hæuei dagokie bidea erraztea, giza- mugimendu hori guztia dinamizatzea, maila instituzionalean borrokatzea etab. Hortxe dago gakoa, hain zuzen ere, borroka instituzionalean, edo beste modu batera esanda, arazo instituzionalean.

Gaur egun, herri xume eta langile honen gehiengo handi batek, selekzio propioak eduki nahi ditu, zeintzuk gure herriaren izena eta ohorea lehertzeraino defendatuko dutena. Hau kategorikoki esaten dut. Honetaz konturatzeko zenbait ekintza erreibindikatioben arrakasta ikustea besterik ez dago. Esaterako, euskal futbol selekzioaren azkenengo partidua. Aurtengo norgehiagokan, inoiz baino jende gehiago bildu zen San Mamesko armailetan gure taldea animatzeko (35.000 lagun). Honek zerbait erakusten du, honek azken finean borondatea islatzen du. Era berean, arrakastatsua izan da **ESAIT** plataforma sortzea. Plataforma honek aurrerantzean aurrera eramango dituen ekintzek zeresana emango dute, eragina izango dute problematika honetan guztian.

Ildo beretik jarraituz, beste zerbait azpimarratu nahiko nuke. Egun bizi dugun aro berri eta itxa-

ropentsu honi begira, herri honek bere nazio eraikuntza egin ahal izateko erabili behar duen estrategia politikoaren barruan, kirola zeregin garrantzitsua izan dezakeen tresna ere izan daiteke. Esan nahi dudana, bizpahiru hitzetan laburtuta, zera da: abian dagoen prozesu honetan, beste guztien artean, kirolak ere bere lekua izan beharko zuela, honek jokoa eman baidezake. Baina horretarako, aurretik beste urrats batzuk eman behar dira egun, herri honen nazio eraikuntzan kirolak betetzen duen eremua, guztiz alde-rantzizkoa delako. Esaterako, ez dugu txapelketa propiorik, espainiar estatuan antolatzen diren txapelketetan parte hartzen dute gure taldeek (ez litzateke gauza bera Real Sociedad-Beasain edo Real Sociedad-Barcelona. Dena dela, hau futbolzale bezala esaten dut), hemendik kanpo antolatzen diren txapelketa guztietan, gure kirolariak espainiar lizentziarekin aritu behar dira, etab.

Honegatik guztiagatik, ez zait harritzekoa iruditzen zenbait kirolarik erakutsiriko jarrera, Aratz Gallastegi errugbilariak erakutsitakoa esaterako (bejondeiola!). Getxo taldeko jokalaririk honek uko egin zion espainiar estatuko konbinatuaren deiari, berak Euskal Herriaren koloreak defendatu nahi dituelako. Seguraski ez da aurrena izan (Inaxio Kortaberria Errealeko libero ohia izan zen aurrena) eta ziurrenik ez da azkena izango,

baina bere jarrera behintzat txalogarria da. Honelako jarrerek erabateko sinesgarritasuna ematen diote euskal selekzioaren proiektuari. Ni ez naiz inor euskal kirolariei beren ogibidearekin zer egin behar duten esateko, ez diot Agustin Aranzabali esango: "Eh, Agustin, zu euskalduna zara, zergatik jokutzen duzu Espainiarekin?". Ulertzen dut, nazioartean gauza asko lor ditzakezu, ohorea, dirua, gauza berriak ezagutu, lagun berriak egin, etab. baina ez litzateke politagoa izango hori guztia guk benetan maite dugun herriaren koloreak defendatuz egingo bagenu? Zergatik ez dugu horregatik borrokatzen? Zergatik ez dira kirolari guztiak ados jartzen?

Amaitzeko, haseran aipatu dudana gogora ekarriko nuke berriro. Gurea da hitza, erabil dezagun, borroka dezagun, legezko bide guztiak agor ditzagun! Gaztelerazko esaera batek dioen bezala "La unión hace la fuerza". Baina hori bai, eta hau azpimarratu nahi nuke, maila instituzionalean jarraipena eman behar zaio herriaren nahiari.

Igor Susaeta Estala



URRETXU

OPTIKA-GABINETE AUDIOPROTESIKOA

Graduazioa-Audiometriak-Audiofonoen moldaketa-Begiko tentsioaren hartzea

Ipeñarrieta, 4 ☎943 72 09 07 Iparragirre, 1 ☎ eta faxa 943 72 59 68

Zer gertatzen zaio Errealari? Mailari eutsiko al dio?



Agustin Erostarbe

Zorte txarra izaten ari da eta beheko zuloan sartuz gero... etsai guztiak txarrak suertatzen dira. Hala ere, mailari eustea lortuko duela uste dut, oraindik partida asko geratzen baitira.



Oihane Molina

Ez dut futbolaz ulertzen, baina ikusten denaren arabera badirudi beharbada mailaz jaitsiko dela. Egia esan, jaisten bada ere ez zait gehiegi axola.



Diego Bilbao

Ni Athletic-ekoa naiz, baina eutsiko diola uste dut, Clemente baitago entrenatzaile lanetan. Nire ustez denboraldi hasieran planteamendu okerra egin zuten eta orain ordaintzen ari dira.



Iñaki Del Rio

Osasunakoa naizenez, jaistea nahi dut, horrela datorren urtean 2. mailan beste derby bat izango baikenuke. Izan ere ez dut uste Osasuna igoko denik. Igoko balitz, Errealak mantendu dadila.

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:
En la edición de esta publicación colabora:

kutxa
fundazioa
fundación

edurne

JANTZIDENDA

Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52

BILINTX
LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax:673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA



Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Urretxuar bat New Yorken

Angel Hernández urretxuarrari gaztetatik alde batetik bestera ibiltzea eta denetatik frogatzea gustatu izan zaio. 11 urte zituela txirrindularitzan hasi zen eta afizionatutan bi urte igaro ondoren profesionaletara pasa zen Caja Rural taldera. Bertan Marino Lejarreta, Peio Ruiz Cabestany eta beste hainbatekin ibili zen bi urtez. Baina profesionaletako bigarren urtean ziklo-kross froga batean positibo eman ondoren, afizionatuetara itzultzea proposatu zioten. Berak dionez “kapri-

kornio zeinukoa naiz eta kaprikornio zeinukook ez dugu sekula atzera jotzen”.

Txirrindularitza utzi, beste alor batzuk hautatu eta aurrera egitea erabaki zuen. Betidanik zine munduan lan egiteko asmoa izan du eta Euskal Herrian horretan saio batzuk egin bazituen ere, Antxon Urrusoloren saioan ere aritu zen extra bezala, duela bost urte EE.BB. etara joatea erabaki zuen. Egun ekoizpen-etxe bat du bertan beste lagun batzuekin batera.

Nolatan erabaki zenuen EE.BB. etara joatea?


Hiru arrazoiengatik joan nintzen: ingelesa ikasi nahi nuelako eskolara joan gabe, hemendik atera eta mundua ezagutu nahi nuelako eta zine munduan lan egitea betidaniko ilusioa izan dudalako. Hemen zurgin lanetan aritu nintzen, baina edozein lekutara joanda ere titulua eskatzen zidaten eta nik ez nuen halakorik. Bestalde, hemen zine mundua nahiko txikia denez, EE.BB. etan errazago izango nuela pentsatu nuen.

Zer egin zenuen EE.BB. etara heldu zinenean?

Hasiera batean Texasera joan behar nuen arrantxo batean lan egitera, bertan ingelesa ikasteko. New Yorkera zioan hegazkina hartu nuen, bertarako bidaiak oso merkeak baitziren garai hartan, eta azkenean New Yorken geratu nintzen. Hasieran pentsio batean egon nintzen eta lan eskaintza handia zegoela ikusi nuen. Hori dela eta, 15 egun igaro ondoren Donostiara itzuli eta bertan nituen zor guztiak kitatu ondoren neskarekin EE.BB. itzuli nintzen gelditzeko asmoz.

Nola lortu zenuen New Yorken aurrera egitea?

Hasieran bidaia agentzian ezagutu genuen Republica Dominicanako neska baten etxean egon ginen. Neska honek, dekoratzaile lanetan ere aritua nintzenez, niretzat lana zuela esan zidan. Baina bere etxean hilabete egon ondoren, ez zidan



**Janet Jackson eta
Spice Girlsen
bideo klipetan
lan egin du
besteak beste**

lanik aurkitu eta azkenean alde egin genuen. Hori dela eta, hegazkinean ezagutu genuen txinatar batengana jo genuen. Berak festa batera gonbidatu eta alokatze-

ko etxea bilatzen lagundu zigun. Baina hemendik eramane nuen dirua xahutzen ari nintzen eta jatetxe batean lanean hasi nintzen.

Baina beste lan batzuetan ere aritu zara...

Bai, bai... egun batean Central Parketik gindoazen Errealaren motxila batzuekin eta Bilboko neska batek motxilak ikusi eta guregana etorri zen. Gure egoeraz hitz egiten aritu ginen eta familia aberats bat bere etxean lan egingo zuen jende bila zebilela esan zigun. Beraiengana joan ginen eta erdi mafiosoak zirela konturatu ginen. Inmigratiokoek asko kontrolatzen zutela eta paperak zuzen ez genituenez, ezin zigula lanik eman esan zigun. Hala ere, nire neskak etxeak garbitzen lana aurkitu zuen eta ni apartamentuak konpondu eta txukuntzen hasi nintzen.

Baina azkenean zine munduan sartzea ere lortu duzu...

Juan Lapena izeneko zuzendaria ezagutu nuen jatetxe batean lanean ari nintzela eta zine munduan lan egitea gustatuko litzaidakeela esan nion. Honek Bartzelonako tipo baten telefonoa eman zidan, deitu egin nion eta Rockefeller Centerren tipo baten urtebetetze festa prestatzen laguntzeko eskatu zidan. 500 milioi pezeta gastatu zituen bere urtebetetze festan! Gure lana bideo eta kamerez arduratzea izan zen. Honela mundu horretan sartzea lortu nuen eta ondoren laburmetraia batean eta hemen iaz estreinatu zen “Cosas

que conviene recordar" filmean lan egin nuen.

Orain ekoizpen etxe batetan sartuta zaude.

Alemaniar batzuekin filme batean lanean ari nintzela, Valentziako mutil bat ezagutu nuen eta Brooklynen eraikin batean zegoen beste lagun batzuekin. Okupa moduan zeuden eta jabeak lan egiteko edo kalera botako zituela esan zien. Hori dela eta, hura konpondu eta bertan ekoizpen etxe bat sortzea erabaki genuen alokairua ordaintzeko. Eraikina konpondu bitartean beste lan batzuk ere egin nituen alokairua ordaindu ahal izateko: Janet Jacksonen, Spice Girlsen... bideo-klipetarako dekorazio lanak esaterako. Oraindik ere lan hau egiten dut filme ezberdinetan.

Ekoizpen etxean ere lan asko al duzue?

Guk bertan zine munduan lan egiteko materiala eta lekua dugu eta filme bat, bideo-klip bat... egin nahi duenari lokala zein materiala eskaintzen diogu. Azkenaldi honetan, adibidez, "Time is up" izena duen pelikulan lanean aritu gara eta filmeko protagonista Pepe Sacristanen neska laguna izan den Leonor Benedetti da. Grabaketa autobus handi baten barruan egin da eta ni autobusa dekoratzeaz, gidatzeaz... arduratu naiz. Horretaz gain, extra lana ere egin dut: pelikulan burua moztzen dioten euskaldun lodi bat naiz.

Zer dela eta erabaki zenuen EE.BB.etan geratzea?

New Yorkek engantxatu egiten du, bertan egon den jende guztia itzuli egiten da. Ni batez ere Brooklynen egoten naiz eta jadanik arrantxora joateko asmoa ahaztua dut. Ni bizi naizen inguruan artista gazte asko dago eta askatasun handiarekin bizi gara. Festa ugari antolatzen dira eta gure eraikinean gazteei laburme-



Angel eta ekoizpen-etxeko bere lagunak.

"Mundu guztiari gomendatuko nioke New York ezagutzera joatea"

traiak grabatzeko, erakusketak antolatzeko... aukera ematen diegu. Irabazten dugun diru guztia ekoizpen etxean gastatzen dugu. New Yorken atsegin dudana beste gauza bat lana aurkitzeko dagoen erraztasuna da. Bertan ez da titulurik behar lanean egiteko, eta edozein lanetan aritu zaitezke ahalmena duzula erakutsiz gero.

Euskal Herrira itzultzeko asmorik ba al duzu?

Bai, lehenengo hango ekoizpen etxea martxan onean jarri eta uztailean hona itzultzeko asmoa dut hemen ere hangoarekin lotutako ekoizpen etxea sortzeko. Sarobe zine eskolan iragarkiak jarri ditut hemendik EE.BB.ra lanera joan nahi duenari laguntza eskaintzeko. Izan ere, ni hemendik hara inongo erreferentziarik gabe joan nintzen eta orain joaten direnei bidea erraztu nahi diet: gure eraikinean lo

egin dezakete etxea aurkitu bitartean eta gainera lana aurkitzea erraztu diezaieket. Hango etxeetan festa ugari antolatzen dira eta beraietara joaten den jende guztia zer-baiten bila joaten da: pisua, bere lanean lagunduko dion jendea...

Ba al dago EE.BB.tan atsegin ez duzun zer edo zer?

Latinoekiko arrazakeria handia dago, baina neurri batean euren arrazoiak ere badituzte. Izan ere, istiluren bat dagoen gehienetan latinoren bat tartean dago. Bestalde, kaleak oso zikinak daudela ere esan beharra dago.

Zein da hemengo gizartearekiko ikusi duzun alde-rik handiena?

Han jendea askatasun gehiagoz bizi da. Kontserbadoreak diren ospea dute, baina horiek herrietakoak dira. New Yorken nahi duzuna egiteko eta nahi duzun itxura izateko askatasun handia dago, inork ez bai-

tizuz horregatik epaituko. Hona etortzen naizenean lagunek era batera edo bestera jazen banaiz harritu egiten dira eta kalera horrela ateratzerik ez dagoela esaten didate.

Zer gomendatuko zenioke New Yorkera joan nahi duen jendeari?

Joan daitezela. Hura ere ez da paradisua eta bertan egoteko baimenekin, hizkuntzarekin... arazoak daude, baina joatea merezi du. Nire ustez, mundu guztia noizbait joan beharko litzateke bertara hura ikustera.



Bi urte eman zituen Caja Rural taldean.

OSITIRALERAKO MOZORROA PRESTATUTA AL DUZUE JADA? OSO TXUKUNA IRTEN EZ BADA ERE BERDIN DIO, KIROLEAN BEZALA, IHAUTERIETAN ERE GARRANTZITSUENA PARTE HARTZEA ETA ONDO PASATZEA DA. GU ERE ZERBAITE-TAZ MOZORROTUKO GARA, BAINA JAI HARTU AURRETIK **TXIKI-MOTZ** PRESTATUA UTZI DUGU. HILABETE HONETAN SASKIBALOIKO EMAITZAK BILDU DITUGU ETA KIROL HORRETAN DABILTZAN IKASTOLAKO ZENBAIT NESKA-MUTILEKIN ERE HITZ EGIN DUGU.



4. maila

Gainzuri D 16

Dani Duro
Jon Cadierno
Xabi Estonba
Euken Serrano
Alain López
Mikel Arranz
Endika Sastre
Ekain Nestar
Juan Pérez
Andoni García
Jairo Moragil

Gainzuri B 32

Aitor Pérez
Ane
Aitor
Unai Niño
Gorka Maniega
Aitor Biain
Jon Segura
Haritz Madina
Cristian Fraile

4. maila

La Salle B 31

A. García
Eneritz
Ander
Ana
Laida
Estefani
Daniel
Mateo
Oscar
Janire
Maialen
Julen

Ikastola C 30

Urtzi
Moreda
Beltza
Joanes
Muñoz
Badiola
Larra
Sanz



4. maila

Haztegi C 34

Andoni Goitia
Maialen Errasti
Iñigo Aranguren
Julen Guerra
Maialen Arando
Mikel Imaz
Pedro
Oier Gabiria
Borja Caballero
Aritz Cantero
Ander Mendia
Eneko
Julen Simon

Ikastola D 44

Iñigo Igarza
Aitor González
Larra
Eguzki
Nerea Gabirondo
Oskar Sanz
Maitane
Jose Ignacio
Aitor Aizpuru

“Oso gustura gaude gurekin jokatzeko duten neskekin”



Hilabete honetan Ikastolan 3. eta 4. maila ikasten ari diren neska-mutil batzuekin hitz egin dugu. Beraiek Gilen Arrieta, Nerea Gabirondo, Aitor González, Iñigo Igarza, Julen Larrañaga, Oscar Sanz eta Jon Urzelai dira.

Orain saskibaloian jokatzeko ari diren arren, lehenago futbolekoan, atletismoan, pilotan, herri kirolean eta igeriketan ere aritu dira. Saskibaloian martxoaren 4ra arte arituko dira eta ondoren eskubaloian ekingo diote.

Urtero bezala, ikasturteari amaiera emateko, maiatzaren 27an Kirol Jaia izango dute.

Kirol ugarritan parte hartzen duten arren, futbola dute gustuko. Gehienak Errealekoak dira eta batipat jokalaritza atzerriarrek atsegin dituzte: Sa Pinto, Kholkhov, Jankauskas... Hala ere, Oscarrek Barcelona taldea du

gustuko eta bertako jokalarien artean Rivaldo.

Batez ere futbola atsegin duten arren, gainontzeko kirolak oso gustuko dituztela ere esan ziguten. Saskibaloian jokatu zuteneko lehenengo partidua irabazi bazuten ere, beraiekin egon ginen egunean ez zuten zorte handirik izan eta galdu egin zuten. Hala ere, ez dute burua makurtzeko asmorik eta hurrengo partidua irabaziko dituztela pentsatzen dute.

Horretarako Rebeka entrenatzailearen laguntza dute eta beraien esanetan oso gustura daude berarekin. Baina Rebeka ez da taldeko neska bakarra, Nerea eta Maitane ere beraiekin jokatzeko ari baitira. Taldean oso giro ona dute eta mutilak neskekin oso gustura daude, beraien esanetan taldeko jokalaritza onetsuenetakoak baitira.

CHIARA

**Ettxerako lentzeria
Oparitarako gaiak**

Labeaga, 33-C behea ☎ 72 51 18

Madaia plazoletan
20700 URRETXU

TABERNA



Gaureratu JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19

ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen
elikadura

Labeaga 31 ☎ 943722780

URRETXU

foto luz
Argazkilariak

Legazpi, 5
☎ 72 11 55
Zumarraga

Labeaga, 43
☎ 72 16 81
Urretxu

Kale nagusia, 5
☎ 73 04 19
Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE KRUASANDEGIA TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943720306
ZUMARRAGA

*"Garbi daukat Madrilen egon behar dela,
aurpegia eman behar dela"*

EA, zure hitzari eutsiz

Begoña Lasagabaster




Han egonda bakarrik defenda ditzakegu gure eskubideak tinko eta koherentziaz.

Begoña Errazti



Ezin da aukerarik galdu Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzen den erakunde guzti-guztietan esku hartzeko.

Nestor Basterretxea



Bakeak eta euskal arazoaren irtenbide politikoak gizartearen esku egon behar duela aldarrikatzen badugu, kontsekuenteak izan eta Madrilen egon beharra daukagu.



Euskal Sozialdemokrazia

Ihauteriak 2000

Argi dago Urretxu eta Zumarraga ez direla Tolosa edo Rio de Janeiro, baina hemen ere ihauterietan mozorrotzeko ohitura jende askok du eta urtero egun hauetan herriko kaleak kolore eta alaitasunez betetzen dituzte.

Duela urte batzuk arte eskoletako umeak ziren mozorrotzen ziren bakarrak, baina azken urteotan geroz eta laguntalde gehiago ateratzen da kalera mozorrotuta.

Azken urteotan gainera, astearteko ohitura soilik zena, ostiral eta larunbatera ere zabaldu da eta inguruotako herrietako jendea ere hurbiltzen da gure herriotara.

Urretxu eta Zumarragako ihauteriaz hitz egiteko urtero mozorrotzeko ohitura duten Zumarragako jubilatuen egoitzakoekin, Etxe-Azpi elkartekoekin eta astearteetan mozorrotzen diren emakume laguntalde batekin bildu gara.



“Mozorroarekin bat datorren dantza prestatzen dugu”

Zumarragako jubilatuen egoitzan urtero-urtero mozorrotzen dira ihauteri asteartean. Duela 9 urte eurekin lan egiten duen monitoreak mozorrotzea proposatu zien eta ordutik hona paila-soz, umez, ipotxez... mozorrotu dira.

Mozorrotzen hasi zirenean, helburua elkartean ihauteri giroa sortzea zen eta lortu dutela argi dago. Izan ere, lehenengo urteetan eskulan taldekoak soilik jazen baziren ere, urtetik-urtera gero eta lagun gehiago elkartu zaizkie ihauteri asteartean mozorrotzeko.

Ihauteriak heldu aurreko asteetan jubilatuen egoitzan biltzen dira eta denen artean urte horretan jantzi behar duten mozorroa aukeratzeko. Mozorro merkea eta egiteko erraza aukeratzeko, mozorroa eurek prestatzen baitute egoitzako eskulan tailerretan.

Aurten zingaraz jantziko dira eta asteartean furgonetan aterako dira mozorroarekin bat datorren polka dantzatuz herriko kaleetan zehar. Furgonetan herriko kaleetan ibiltzeko

ohitura hasieratik izan dute eta honela herriko giroa alaitzea lortzen dute.

Kalejira amaitu ondoren, egoitzara itzuli eta bertan dantzaldia eta merienda izaten dute.

Urtero 30-40 lagun mozorrotzen dira eta esan digutenez oso giro onean igarotzen dute arratsaldea. Izan ere, askok oso gaztetatik dute ihauterietan ateratzeko zaletasuna eta urteak igaro badira ere ez dute umorea galdu, ez horixe!

“Elurtea izan zen urtean, sanba-dantzari mozorroa prestatu ondoren, aldatu egin behar izan genuen”

Etxe-Azpi elkarteko zenbait bikote duela 20 bat urte hasi ziren ihauteri asteartean ateratzen ikastolako umeekin eta aitzaki horrekin gaueko giroaz ere gozaten zuten. Baina handik urte batzutura ihauteri larunbatak indarra hartu zuen eta ohitura larunbatera pasatzearekin batera elkarteko gehienak mozorrotzen hasi ziren. Egun 15 bikote inguru elkartzen dira, hauetako batzuk elkartekoak ez dira, baina mozorrotzeko eta ihauterietako giroaz gozatzeko gogoia duten lagunak dira. Egun nagusia zapatua duten arren, bikote batzuk asteartean ateratzeari ez diote muzin egiten.

Euren esanetan “ihauteri astearteak indar asko galdu du, batez ere helduei dagokienez. Lehen askoz ere heldu gehiago ateratzen ginen asteartean, baina duela 8 bat urte larunbata indarra hartzen hasi zen eta orain kanpoko jende asko ere hurbiltzen da

Urretxura”.

Etxe-Azpi elkarteko lagunak larunbat arratsaldean biltzen dira elkarrean eta bertan mozorrotzen dira, “politena prestaketa izaten da, denok elkarrean jazten baikara. Ondoren afaria egiten dugu eta afalostean tabernaz-taberna ibiltzen gara dena ixten diguten arte. Egun horretan “kamuflatuta” goazenez, gazteen tabernatan lasai asko sar gaitezke inork arraro begiratu gabe”.

Mozorroari dagokionez, urtetik urtera aldatzen duten arren, ez dira urtero denak berdin mozorrotzen, “batzuetan denok berdin joaten gara eta beste batzuetan bakoitzak bere mozorroa aukeratzen du. Aurten denok berdin joango gara. Dena den, garrantzitsuena mozorrotua joatea da. Koadrilan ihauteriak oso garrantzitsuak dira eta afarira joateko jartzen dugun baldintza bakarra

mozorrotuta joatearena da. Edozein gauza jartzearekin nahikoa da...”

Ihauteriek Etxe-Azpikoentzat duten garrantziaren isla bikote batzuk Tolosara ere joaten direla da, “Urte batzuetan zapatuan atera ondoren, igandean Tolosara joaten gara bertako giroaz ere gozatzera. Gainera, hurrengo urtean zertaz mozorrotu gaitezkeen ikusteko ere balio digu. Tolosan zezen plazara joan eta primeran pasatzen dugu, bertako giroa mundiala baita. Noizbait Donostiara ere joan garen arren, Tolosako giroa askoz ere politagoa da”.

Hainbeste urtetan mozorrotu ondoren, gertakari xebreak ere bizi izan dituzte “duela urte batzuk sambadantzari mozorroa prestatuta genuen, baina sekulako elurtea izan zen eta azken unean mozorroz aldatu behar izan genuen”.





“Gizonezkoen lotsa handiagoa ematen die mozorrotzeak, baina ihauterietan lotsa etxean utzi behar da”

Zumarragako koadrila hau betidanik koadrilan ibili diren zenbait lagunek zein bazkalosteko kafea hartzean elkar ezagutu duten beste hainbestek osatzen dute, honela guztira 12-13 lagun elkartzen dira. 80 hamarkada erdialdean ihauterien aurreko egunetan kafea hartzen ari zirela gaia atera eta mozorrotzea erabaki zuten. Orduetik hona urtero mozorrotu izan dira Charloitez, beltzez, pailasoz, estralurtarrez...

Iaz egipziaz jantzi ziren eta Urretxuko Aldapak taldekako mozorro onenaren saria eman zien. Dena den, beraiek ez zirela sariaren bila joan argi utzi nahi dute “ez gara ahalik eta mozorro on eta politena egiten saiatzen. Ihauteriak baino hilabete bat lehenago elkartu eta bakoitzak bere ideiak eramatean ditu, ondoren denon artean urte horretan zertaz mozorrotuko garen erabakitzen dugu. Gai bat aukeratzen dugu eta denok gai horrekin zerikusia duten mozorroa jazten dugu. Guk geuk prestatzen ditugu mozorroak eta prestaketa lan honekin izugarri gozatzen dugu. Iaz gure helburua saria lortzea ez zen arren,

saria lortzeak poztu gintuen, noski, eta eman ziguten diruarekin beste afari eta parranda bat egiteko aitzakia izan genuen.”

Beraien ustez, ihauterietako ohiturak eta giroa asko aldatu dira Urretxu-Zumarragan azken urteotan, “lehen asteartean soilik izaten zen giroa, baina orain Tolosan gaudela dirudi: ostiralean, larunbatean eta asteartean irteten baita jendea. Gu astearte arratsaldean mozorrotzen gara eta ondoren afaria egiten dugu. Afalostean tabernetara joaten gara eta etxera hurrengo egunean lana egin beharra dagoela gogoratzen dugunean bueltatzen gara”.

Beraien ustez herrian oso giro polita bizi da ihauterietan, “tabernarietan lan ona egiten dute eta giro ona sortzen saiatzen dira. Baina beraiez gain norberak mozorrotu eta giroa jarri beharra du. Gu umore onez eta lotsa gutxiz ateratzen garenez, primeran pasatzen dugu. Urteren batean Legazpira ere joan gara, baina bertan herrian baino giro kaxkarragoa zegoela ikusi eta herrira bueltatu

ginen. Dena den, herrian oso giro ona dagoen arren, gizonezko gutxi mozorrotzen dela uste dugu. Emakumeoi baino lotsa handiagoa ematen diela uste dugu. Gure senarrak ere ez dira mozorrotzen, baina noizbait inbidia ematen diegula ere esan digute”.

Koadrila honek, Etxe-Azpikoek bezala, arazoak izan zituen elurtea izan zen urtean, “urte hartan torerok eta txulapaz atera behar genuen eta oinetakoak aukeratzeko orduan zalantzan ibili ginen: mokasinak jarri edo... azkenean elurtea izan zen eta mendiko botekin eta artilezko galtzerdiekin atera behar izan genuen.”

Ihauteri egunak gogo handiz bizitzen dituztela argi dago “ilusio handia egiten digu egun hauek iristea, eguneroko arazoak ahaztu eta irudimena askatzeko balio baitute. Astearte gaueko afarian jada, hurrengo urteko mozorroari buruz hitz egiten hasten gara. Jendeak egun hauetan guk bezainbeste gozatzea gustatuko litzaiguke, beraz, lotsa etxean utzi eta denok mozorrotzera!”.

Martxoko agenda

-Haur eta gazteentzako ekintzak

-Larunbatetan festara

Haurrentzako eskulanak, kaskazuriren eskutik.
Larunbatero Urretxuko Kultur Etxean, dohainik, 11etatik 1ak arte.

-Haurrentzako zinea

Lehenengo mailatik seigarren maila bitartean.
Igandero, arratsaldeko 4,30etan, Pagoeta Antzokian. Sarrera 100 pezeta.

-Musika

-Golden Apple Quartet, Radio Golden.

Martxoaren 10ean, ostirala, gaueko 10etan Ederrena pilotalekuan. Sarrera 1000 pzta.

-Urretxuko txistulariak

Igandero, goizeko 9,30etatik aurrera, kalejira Urretxuko kaleetan.

-Antxinako Ama txistulari taldea

Igandero kalejira Zumarragako kaleetan.

-Secundino Esnaola Musika Eskola.

Musika eskolako ikasleen kontzertua martxoaren 2an arratsaldeko 6etan. Bergarako musika eskolako ikasleen kontzertua martxoaren 3an arratsaldeko 6etan.
Bi kontzertuak Legazpi Dorretxean.

-Zumarragako IV. Abesbatzen lehiaketa

Martxoaren 26an haur abesbatzen jaialdia eta apirilaren 8an eta 9an helduena. Goizeko 11:30etan Antiguako elizan. Bi igandeetan autobus zerbitzua egongo da.

-Erakusketak

-Juan de Lizarazu erakusgelan

Zehaztu gabeko erakusketa martxoaren 16tik 26 ra bitartean.

-Pintura, argazki eta eskultura erakusketa

Unai Buron eta Unai Muruaren Martxoaren 3tik 12ra bitartean Itarte Etxean.

-Argazki erakusketa

Urola K.E.ren historia argazkietan, martxoaren 18tik 27ra Itarte Etxean.

-Ihauteriak

-Martxoak 2, ostegun gizona.

Ogitarteko eta laranja banaketa eskoletan Zuhaitz landaketa egingo da herrian.

-Martxoak 3

Ikastetxeen desfileak.
Arratsaldeko 5etan Areizaga-Kalebarren

-Martxoak 4

enparantzan Joselu-Anaiak taldeak alaituriko dantzaldia. Eguraldi txarra eginez gero, "Ederrena" pilotalekuan izango da.

Lurra Dantza Taldeak dantzatu eta antzeztutako "Txotxongiloa" deituriko ihaute ria. Goizez, Urretxuko baserrietan eta arratsaldeko 6etatik aurrera, ibilbidea Urretxuko kaleetan.

-Kirolak

-Goiherri K.E.k antolatuta Iparraldera irteera martxoaren 26an: Artxilako Kaskoa - Hoxa handia - Harribeltza - Gazteluzahar.

-Lehiaketak

-Bertso paper, komiki, pintura eta argazki lehiaketarako oinarriak martxoaren 15etik aurrera Zumarragako udaletxean eta Urretxuko Kultur Etxean.



Ainhoa, urteroko txokoa gorde dizugu eta urteroko irri-farreaz heldu zara. Ez al dizute argazki berririk ater behar? **Zorionak!**



Jobana, nork esan behar zizun hainbeste urte ondoren Pedro tren geltoki batean aurkituko zenuenik! Ondo pasa zure Pedro kuttunarekin!



Markel, "Pelusa" Maradona dirudik motel! Ihauterietan afro mozorrotu behar al haiz? **Zorionak** eta ondo pasa!



Ander, esaiouz aitari flashari indar pixka bat kentzeko Ezkioko Amabirjina azaldu zaizula dirudi eta! **Zorionak** eta ondo pasa!



Itziar zerk sortu dizu txundidura aurpegi hori? Ea urtebetetze eguneko opariak ere horrelako sorpresa ematen dizun! **Zorionak!**



Oskar, zure bihurri aurpegia ikusita, badaezpada ere zuri adarrik ez jotzea erabaki dugu. **Zorionak** eta txintxo ibili!



Ander, Argentinara bere amaren bila joan zen Marco dirudizu txintxo aurpegi horrekin. Zuk ere ikasiko duzu!



Izaskun, 26 urte betetzeak ez dizu graziarik egiten, baina oraindik ez zara hainbeste zahartu eta datorren urtean emaguzurteko argazkia.



Maria, zuk ere ez zenigun ba alabak bezala aspaldiko argazkia emango? **Zorionak** eta ondo pasa biok urtebetetze eguna!



Benita, Benita... ze maltzurkeria prestatzen ari zara aurpegi hori jarrita? Ea pegatinak jartzera sarriagotan etortzen aren! **Zorionak!**



Jon, lo egiteko begiak ixten al dituzu? Hori da hori begirada! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguneari.



Rosario, zer moduz Brasil aldean futbollean eta parrandan? Ui, barkatu, Brasilen dagoena Rosario da... **Zorionak!**



Kristina, ondo pasa urtebetetze eguna eta gustukoa ez duzun oparia egiten badizute ere, segi orainarte bezain irrifartsu.



Aiaiaiaiaiaia i i i! Segi dantzan nekatu arte **Karme**, baina kontuz ibili, bestela zorabiatu eta lurrera zerraldo eroriko haiz eta! **Zorionak!**



Xabier, ameriketara joan al zara pistolerolan? **Zorionak** eta kontuz ibili atzealdeko "forasteroekin".



Kristina, argi ibili, aita burusoil gelditzen hasten denean behar bada zuri kenduko dizu ilea eta! **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Zorionak Mikel eta segi Urolan golak sartzen. Ea egunen batean izebari agindutako etxea (txakur eta guzti) oparitzeko aukera duan!



Horrela jarraitu, hain txintxo eta atsegin. **Zorionak Andoni**, guraso eta anaiaren partez.



Zazpi urte betetzen dituzula eta zure guraso, anai Jon Ander, aitxatxa, amama eta osaba-izeben izenean, **zorionak Erik!**



Nora begira hago **Kristina**? Oraingoan ere Bixen xelebrekerien bat egiten ariko duk. Lotu ezan soka motzean... **Zorionak!**



Zein bihurrikaria ari zinen pentsatzen argazkia ateratzen ari zitzazkizun bitartean? **Zorionak Beñat** eta ondo pasa txokolatada.



Aupa potxolina! Onena opa dizut eta segi orainarte bezala, zu bezalako gutxi gelditzen dira eta! **Zorionak!**



Lourdes, aldamenekoak merienda lapurtuko dizun beldur al zara? Lasai, zure urtebetetzeko "txokolatadan" txintxo portatuko dira eta!



On aurpegi hori susmagarria da. Espero dugu oraingoan hautsitakoa oso garestia ez izatea. **Zorionak Koldo!**



Goizane, "La Casa de la Pradera"ko Laura Engels dirudizu kapela eta guzti. **Zorionak** eta oso ondo pasa urtebetetze eguna!



Maitane, izena apropos jarri zizuten. Zu bai neska txintxo eta maitagarria! (Hala dirudi argazkian ikusiz gero behintzat). **Zorionak!**



Baten batek esango lukeen bezala "la más guapa y más buena". **Zorionak amona!**



Idoia segi horrela, zu bezalako neska irrifartsu eta alaiak behar ditugu aldizkarian ateratzeko eta! **Zorionak!**



Zu ikusita jakin dugu azkenean nondik datorrik Aintzaneri umorea eta adarra jartzeko zaletasuna! **Zorionak Miren** eta segi horren irrifartsu!



Atzeko horiek horretan dabilzala ematen duen arren, ez da jaio zuri adarra joko dizunik. **Bejoandeizula Niko!**



Imanol alaitu ezak aurpegia pixka bat motel! Saralegik harria altxatzea lortu ez zunean bezain serio hago! **Zorionak!**



Hauek **Xabier** eta **Inaki** dira eta jendeak nor zen nor ez jakiteaz asperturik, bietako batek, primeran ikusten zuen arren, betaurrekoak jarri zituen. Hala ere, guk bakoitza zein den jakin gabe jarraitzen dugu. **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 **URRETXU**
Golden plazoletan


Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

 HARGOR ILEAPAINDEGI MIXTOA Nekolalde, 3 baxua ☎ 943 72 44 42	 HARGOR Artisautza - arropak - opariak Nekolalde, 1 ☎ 943 72 56 58
--	---


BAPRI
ANIMALIADENDA

Txoriak, arrainak, katuk, dordokak

Urdeneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA


KABIA
JATETXEA

Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA



Ojos del Saladoko gailurrean Ostadar Mendi Taldeko lagunak gogoan izan zituen.

Juanjo Aranburu, Andeetatik bueltan

Juanjo Aranburu zumarragarrari txikitatik datorio mendizaletasuna. Hori dela eta inguruotako mendibazter guzti-guztiak ezagutzen ditu. Asti pixka bat hartzen badu, seguraski Izzapi aldean ikusiko dugu pasiatzen. Asteburuetan, berriz, Aitzgorri, Txindoki edo Piriniotara joaten da eguneroko kezkez ahaztu eta mendiaz patxadaz gozatzera.

Baina Ostadarrek antolatzen dituen mendi irtee-

rei eta iraupen luzeko martxei esker Europako mendi garrantzitsuenetan ibili ondoren, mendirako grinak paraje berriak ezagutzera bultzatu du. Gogo hau asetzeko Gabonak ondoren Andeetara joan zen hego hemisferioko hiru mendi altuenak igotzera. Oraingo honetan bere grina zertxobait asetu duen arren, seguraski denbora luzea pasa aurretik inguru berrien bila abiatuko da.

Nolatan erabaki zenuen Andeetara joatea?

Goierriko hiru lagun elkarrekin ibiltzen gara sarritan eta Pirinio eta Alpetan egonak garenez, Andeetara joatea ondo egongo litzatekeela pentsatu genuen. Hemendik joaten den jende gehiena altuena den Aconcaguara joaten da eta gure asmoa esparru zabalago bat hartu, egun batzuk gehiagotarako joan eta beste zenbait menditan ibiltzea izan zen. Nora joan pentsatzen ari ginela, bizi-bizi ibiliz gero 35 egunetan hiru gailur egitea posible zela ikusi genuen: Ojos del Salado, Pissis eta Aconcagua. Hiru mendi hauek, orden

horretan, hego hemisferioko altuenak dira. Bidaia egiteko Felipe Uriarterekin harremanetan jarri ginen, berak era honetako bidaiak antolatzen baititu. Berari ere ideia polita iruditu zitzaion eta azkenean jende gehiago elkartu eta zortzi lagun joan gara. Zazpi mutil eta neska bat. Gehienok joan aurretik ez genuen elkar ezagutzen eta beldur pixka bat ematen du 35 egunetako elkarbizitza nolakoa izango den pentsatzeak, baina oso harreman ona izan dugu.

Zer nolako entrenamendua egin zenuen bertara joateko?

Beti ibiltzen gara mendian, baina

bertara joateko bereziki entrenatu genuen alturan eta sokekin Piriniotan. Azkenean ez dugu eskalatzeko beharrik izan, baina joan aurretik Pissis mendiari beldur pixka bat genion, bertara igotzen ginen lehenengo euskaldunak ginenez, ez baikenuen inongo erreferentziarik.

Zer moduz moldatu zara?

Ojos del Saladorako bidean 5000 metrotik gorako hainbat gailur igo genituen egokitzeko aitzakiarekin, eta indartsu heldu ginen. Ojos del Salado hau Argentinako mendi gogorrena da eta teknikoki ere zailena, baina gustura igo genuen.

Ondoren Pissis igotzeari ekin genion. Jada egun dexente generamanez, oso ondo ibili ginen, altuera arazorik gabe. Baina oso eguraldi txarra tokatu zitzaigun, gauean -30° inguru eta elurra, eta gailurrerantz irten aurreko gauean botak busti eta izoztu egin zitzaizkidan. Hori dela eta, gorantzako bidean noizean behin galtzerdiak aldatzen joan behar izan nuen eta atzean gelditu nintzen. Lainoa dela eta, lagunak begibistatik galdu eta Pissiseko gailurra zelakoan alboan zegoen beste batera igo nintzen. Ondoren Aconcaguako kanpamendu basera joan ginen. Beste bietan aritu ondoren erraz igoko genuela pentsatu genuen. Baina kanpamenduan bronkitis

“Ojos del Salado eta Pissis mendietara igo garen lehenengo euskaldunak gara”

epidemia zegoen eta bi lagun gaixotu egin ginen. Saiakera batzuk egin genituen, baina egunetik-egunera okerrago geunden eta amore eman behar izan genuen. Zorte kaxkar xamarra izan dut eta beste lagun batek are okerragoa izan du, hanketan kongelazioa izan baitu. Hala ere, ez zen oso larria izan eta Zaragozara joan gabe, hemen sendatu ahal izan da.

Aconcagua eta beste bi mendien artean alde handi izango da...

Ojos del Salado eta Pissisen 22 egunetan bakar-bakarrik ibili gara. Gure aurretik Ojosen espedizio brasildar bat egon zen, baina gu baino hilabete lehenago. Izan ere hiru gailurrak igo ahal izateko Argentina aldetik joan behar izan genuen eta gerturatze bidea oso luzea denez, jende gehiena Txiletik joaten da. Izan ere, Txiletik joanez gero 4.500 metrotaraino autoz joan daiteke. Baina iaz euskaldun batzuk Txiletik joan ziren eta Pinocheten kontua dela eta arazoak izan zituzten, militarren hiru postu pasa behar baitira. Bestalde, guk

desertua eta Atacamako inguruak ere ikusi nahi genituen, paraje izugarri politak baitira. Oso jende gutxi pasa da leku horietatik eta bertako jendeak ere ez du beraien berri, bertara iristea oso zaila baita. Aconcagua, berriz, erabat desberdina da. Bertara hurbiltzea askoz ere errazagoa da eta herrialde ezberdinetako jende asko joaten da.

Inguru haietako jendea ezagutzeko aukera izan al duzue?

Mandazainek pisurik handienak eramanez dizkigute kanpo baseetara. Gurekin ibili zirenak, batik bat, mahasti, olibondo eta ganadutik bizi dira, esan bezala Argentina aldetik oso jende gutxi joaten baita mendi horietara. Gutxierekin konformatzen den oso jende ona da. Ez dute argi ikusten hemendik hara, hain ezkutuan dauden lekuetara, zertara joaten garen. Gauetan eurekin kontu-kontari aritzen ginen, beraiekin oso harreman ona izan dugu eta azken egunean afari bat egin genuen euren herrian. Egunduek lagunak izan ziren. Egunduek lagunak izan ziren. Egunduek lagunak izan ziren. Egunduek lagunak izan ziren. Hala egin zuen eta bi egunetan hura jan genuen.

Asetuta gelditu al zara edo asmo berri-rik ba al duzu?


Nekatu xamar etorri gara, egunetan 11 ordu inguru ibili baikara eta elurretan gainera. Orain denboraldi batean etxean geratzeko asmoa dut, baina mendia hain zabala denez beti sortzen da beste nonbaitera joateko gogo. Bidean ere hitz egin genuen eta Himalayara joatea gustatuko litzaiguke Shisha Pangma edo antzerako zortzimilako xamur bat egitera. Baina hara joateko baimenak ordaintzeko diru asko behar da eta denbora ere bai, hiru hilabete gutxienez. Dena den, hemen bertan oso gustura ibiltzen naiz, baina egunen batean Himalayan frogatzea ere asko gustatuko litzaidake. 7.000 metrotan arazorik ez izateak, altuera handiagoan frogatzeko gogo sortzen du.

Zumarraga-Urretxuko mendizaletasunak osasun ona duela uste al duzu?

Bai, bai... lehenago ere Goierri elkarteko zenbait lagun Aconcaguan izan ziren eta herrian mendi horietara igotzea lortuko lukeen jendea badagoela uste dut, baina astia eta denbora behar da. Gizarte honetan presaka bizi gara eta ez dugu entrenatzeko eta mendi horietara joateko denborarik. Beste kirol batzuetan egunean orubete aritzearekin nahikoa da, baina mendiak denbora asko eskatzen du.



Juanjo, Pissis mendiko kanpamendu basean.



Mitxel Badiola

Bizitza erdia taldean eman ondoren, Urola taldeak bere historian izan duen aurrelari garrantzitsuenetako bat dela esan daiteke. 81. urtean hasi zen Urolan jokatzeko eta 91n lehen taldera igo zen. Bera da, Iñaki Aranzadirekin batera. 3. mailara igoz gero bertan zuten belaunalditik jokatzeko jarraitzen duen bakarra. Hala ere, urte hauetan guztietan Urolaz gain, Alaves Aficionados, Beasain, Elgoibar eta Lagun Onaken ere aritu da.

Futboleko igaro duen urte onena Urolak 3. mailara igoz gero bertan zutenekoa izan zela esan digu eta nahiko kezkatua dago futbol afizionatuaren egoera dela eta. Hala ere, Urolak jarraian irabazi dituen partiduen ondoren jende gehiago hasi omen da berriro ere Argixaora hurbiltzen. Bere ustez, Urolak oso talde ona du eta berriro ere 3. mailara igo omen daiteke. Futboleko jokatzeko gain, ikasketak ere zaindu zituen eta Ikastolan eta Lizeoan ikasi ondoren Gasteiza joan zen IVEF egitera. Egun Heziketa Fisikoko irakaslea da La Salle-Legazpi ikastetxean.

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Futbolaria.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Kirola egitea.

-Bizitzeko toki bat?

Urretxu.

-Haserre egoteak azterketetan eragina al du?

Ez du eraginik, azterketak plan baten arabera prestatzen baitira. Hala ere, ondo portatzen ez badira azterketa jar-tzearekin mehatxatzen ditut.

-Zer da okerragoa, ume petral bat ala atzelari gogor bat?

Ume petrala. Atzelari gogorrari nik ere egurra eman die-zaioket...

-Gustuko futbol jokalaria?

Schuster.

-Gustuko aurrelaria?

Hugo Sánchez.

-Urolan ikusi duzun jokalaririk onena?

Iñaki "Bixio" Aranburu.

-Izan duzun entrenatzaile onena?

Jesus Mari Biain eta Kike Ormaetxea. Azken honekin asko ikasi nuen, nahiz eta Eibarren ez zuen zorte handi-rik izan, oso entrenatzaile ona da.

-Errealean zein entrenatzaile jarriko zenuke?

Clemente bera.

-Urolaz gain zein taldetan ibili zara gustuen?

Elgoibarren oso giro ona genuen.

-Real Madrid ala Barca?

Barca, Barca...

-Nor gustatuko litzaizuke ezagutzea?

Inor ez bereziki.

-Norekin pasatuko zenuke asteburu bat?

Lagunekin.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Ileheriak.

-Egindako azken oparia?

Minikate bat.

-Eta jasotakoa?

Arropa.

-Data bat?

97ko ekaina, karrera bukatu nuen eguna.

-Neska izen bat?

Ainhoa.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Normalean "Diario".

-Gustuko telebista saioa?

Kirolak eta filmeak.

-Bereziki gorroto duzuna?

Politika gaiak lantzen dituztenak eta batez ere "kule-broiak".

-Liburu bat.

Hezkuntza fisikoarekin zerikusia dutenak irakurtzen ditut.

-Filme bat.

Seven.

-Gustuko abestia?

Rolling Stonesen "Satisfaction".

-Soinu bat.

Itsasoarena.

-Usain bat.

Belarrarena.

-Ukitzeko...

Giza azala.

-Janari bat.

Oilaskoa eta txuleta.

-Ura ala...

Ura.

ONGI ETORRIAK



GUGAN JARRITAKO KONFIDANTZAGATIK
MILA ESKER

Pagoeta Haur Eskola


1998-1999-2000 URTEETAN JAIOTAKO HAURRENTZAT
MATRIKULA IREKIA

BULEGO ORDUTEGIA: 9,00 - 13,00 / 14,30 - 17,00

Telefonoa: 943 72 00 26



**SUKALDE
ERAKUSKETA**



Udala enparantza, z/g
☎ 943 79 00 43
20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
20700 URRETXXU